

Usabalek Nazioarteko Eskubaloia Txapelketa hartuko du asteburuan

Tolosa CF-ren mendeurrenaren eta eskubaloia atalaren 50. urteurrenaren harira, goi mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera izango da //7



Iñaki Martixa, Juan Martin Amiano 'Porta' eta Imanol Esnaola, aurkezpenean. I.G.

Tolosan Aholku Sareko bulegoa kokatu dute

Pertsona migratzaileei aholkularitza juridikoa ematea da helburua; 28 informazio gune daude orotara, eta horietatik 10 Gipuzkoan //2



IRATISAZAR

«Inauterietan gure plana Alpeetara joatea zen, izotz eskalada egitera»

BEÑAT ETA AITZOL DOYHARZABAL KIROLARIAK

Duela bost urte Kanadara joan ziren anaia ibartarrak izotz eskalada egitera, eta bidaia hartan hartutako irudiekin osatu dute 'Mendian bihotz' dokumentala; gaur estreinatuko dute Ibarren, eta ondoren solasaldia egingo dute //6

ehun

FISIOTERAPIA

Tel.: 633 04 94 74
www.ehunfisioterapia.eus

Aholku Sareko bulego berria ireki dute

Atzeritarrei aholkularitza juridikoa emateko, Aholku Sareko bulego berri bat zabaldu du Eusko Jaurlaritzak Tolosan

Endika Apalategi Labayen

Aholku Sareko bulego bat ireki berri dute, Tolosan. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailaren helburu nagusietako bat, pertsona migratzaileek beren egoera erregularizatu eta lan-merkatuan sartu ahal izatea da, eta hor kokatu behar da bulegoaren irekiera. Atzeritarrei juridikoki aholkularitza eta laguntza eskaintza indartzeko xedea izango du bulegoak.



Aholku Sareko bulego baten artxiboko irudia. IREKIA

Eusko Jaurlaritzak esan du Tolosako irekierarekin 28 informazio gune daudela momentu honetan atzeritartasunari buruzko laguntza juridikoa emateko eta horietako 10 Gipuzkoan daudela. «Pertsona migratzaileei beren bizi-exodoaren bide gogorean laguntzea da helburua», azaldu du Beatriz Artolazabal sailburuak.

«Lan-merkatuan sartzeko oztopo burokratikoak eta legalak daude. Eta hori dela eta, Aholku Sarea, norbanakoei eta migratzaile-elkarteei bidea lege-aholkularitza baten bidez bideratzeko, eta informazioa emateko sortu zen», nabarmendu du sail-

buruak. Beatriz Artolazabalek «lankidetzatza publiko-pribatuari» balioa eman dio zerbitzu honetan, erakunde eta elkarte askok hartzen baitute parte sarearen kudeaketan.

Azkenik «errefuxiatuentzako makrozentro masifikatuak» auzitan jarri ditu, hala nola Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioak aldebakarrak iragarritakoa. «Gure ereduak gizarteratzearen alde egiten du, makrozentroetatik ihesi». Horretarako, Oñatin, Tolosan eta Berriren hainbat gizarte-erakundek kudeatutako baliabideak hartu ditu erreferentetzat.

GUTUNA

Tolosako Zumarditxikia

Azpian sinatzen dugunok Tolosako kultur gile eta kultur eragile talde bat gara eta gure kezka eta ezinegona adierazi nahi dugu Zumarditxikia zaharberritzeko mahai gainean dagoen proiektuaren inguruan. Ez gara gu izango erakutsi zaigun proiektu berria auzitan jarriko dugunak teknikoki edo arkitektonikoki. Horretarako dago Tolosako 34 arkitekto sinatutako manifestua, kultur esparrutik hitzez-hitz babesten dugun manifestua, bide batez esanda. Manifestu horretan adierazten diren, eta guk gure egiten ditugun, puntu nagusiak gogoratu nahi genituzke:

- Zumarditxikia balio historiko, formal eta funtzional eztabaida ezina duen eremua da, zerbaitegatik eduki zuen Tolosako Udalak bereziki babestua, 2009ko arauetan babesa kendu zion arte.
- Azken hamarkadatan izan

duen aparkaleku erabilerak Zumardia herritarren imaginario kolektiboak ezabatu du: horregatik, aparkalekuak kentzeko erabakia txalogarria iruditzen zaigu, espazio zoragarri bat berreskuratzeko aukera paregabea eskaintzen baitigu. Udalak proposatzen duen proiektuak, ordea, ez digu herritarroei Zumarditxikiko espazioa berreskuratzeko aukera emango, espazioa desitxuratu egingo da, eta beste zerbaitek bihurtuko da. Proposatutako proiektua gauzatzen bada Tolosako Zumarditxikia galduko du betiko.

- Udalak sustaturiko proiektuak espazioa desegiten du, zati-tu, mailakatu; egoteko eta biltzeko espazio bat izatetik zeharkatzeko espazio bat izatera pasako da.

- XXI. Mendeko Tolosaren beharrei erantzuteko ez da beharrezkoa egungo Zumarditxikia desagerraraztea. Zumardia errespetatuz idatziko litzatekeen proiektuak, dudarik gabe, bete ditzake egungo mugikortasun, irisgarritasun, inklusibitate eta ongizate baldintzak.

Bestalde, kultur gileon aldetik, azterketa kritiko honi beste bi puntu gehitu nahi genizkioke:

- Kultur ekitaldiak, dantzaldiak, kontzertuak: Proiektu berria ongi aztertu dugu eta ikusten dugu proiektuak proposatzen duen espazioaren banaketak ia ezinezko egingo dituela kultur ekitaldi herrikoiak. Azken urteotan bertan ospatu diren Haragi, Mikologika eta antzerako jaialdi eta kontzertu jendetsu eta parte hartzaileak ia ezinezko bihurtuko dira formatu horretan. Gogoratu, bestalde, gure guraso edo aiton-amonek nola hitz egiten zuten duela ez hainbeste Zumarditxikian egiten ziren dantzaldiez. Proiektu honekin inoiz itzuliko ez diren dultze- moneak...

- Ondarea: Arkitektoek zioten bezala Tolosako ondarearen zati garrantzitsu bat betiko galduko da. Gure ustez, tranpatia da esatea funtzio berdinak baina XXI. mendera egokitutako izango di-

tuela Zumardiak, modernizatuak. Ondare materiala, hor dagoen hori da. Ikusten eta zapaltzen duguna. Hori suntsituz gero, funtzio berdintsuak beteko dituen zerbaite eraike zenezake, bai, baina ondarea galduko da betiko. Eta ez da nostalgia kontu bat. Alde Zaharreko hainbat eraikinetan egur bat bera ere mugitzea erabat debekatua dago legez, eta bitartean 2009ra arte ondare moduan babestua zegoen Zumardia erabat txikitu eta berri bat eraikitzekotan gaudu. Ez da ulertzen erraza.

Esan behar da proposatzen den proiektua ederra dela, bai. Eta lan handia dago horren atzetik; ez dugu dudarik egiten. Baina proiektu horren estetika berdin balio du Tolosarako, Baionarako, Madrilera edo Berlinera. Zumardia, berriz, Tolosa da, Santa Klara komentua edo Uzturre bera bezainbeste, eta gainera, tamalez, Gipuzkoan geratzen den Zumardi bakanetakoa, beste guztiak *desarrollismo* itsuak eraman baitzituen.

Guk ere, arkitektoek dioten moduan, akats historiko bat ekidin nahi dugu. Onartzen dugu, agian manifestu hauek duela bi urte kaleratu izan bagenitu, beste egoera batean izango ginatkeela orain, baina errealitatea da gaur, oraindik garaiz gaudela erabakia atzera botatzeko, alkatetik eta zinegotzietatik azken aldi behin baino gehiagotan errepikatu duten bezala. Proiektua ez dago eslebita, beraz, gera daiteke. Eman dezagun pauso bat atzera. Itxaron dezagun huteskundeak pasa arte inolako erabakirik hartu gabe, eta atera dezagun gai hau lehia politikoetik.

Gure aurrekoei zor diegu, eta etorkizunak eta Zumardiak eskertuko digute, zalantzarik gabe.

Karlos Linazasoro,
Alberto Letamendi, Arantza Munita
Irisarri eta Miren Zeberio kultur arloko beste 35 sinatzaileekin batera

Tolosa
(sinadura guztiak Ataria.eus-en ikusgai)



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 TOPIC - Tolosaldeko Nazioarteko

Txotxongilo zentroa

Bi lagunentzako bina sarrera

Euskal Herria plaza - TOLOSA
943 65 04 14
www.topictolosa.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 ALBAOLA ITSAS KULTUR

FAKTORIA

Bi lagunentzako bina sarrera

Pasai San Pedro
943 39 24 26
www.albaola.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 EKAIN FAST + EKAIN ABENTURA

EKAINBERRI museoa

Bi lagunentzako bina sarrera

ZESTOA
943 868811
info@ekainberri.com
www.ekainberri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Kalegoenako proiekturako izena ematea zabalik da

Bidania-Goiatzen etorkizuna eraiki nahi duten herritarrek udalaren webgunean dagoen Kalegoenako etxebizitzetxei buruzko galdetegia bete dezakete, otsailaren 12a baino lehen

Leyre Carrasco Bidania-Goiatz

Bidania-Goiatzen azken etxebizitzak eraiki zirenetik urte mordoxka igaro dira. Azken boladan, herriko gazte askok beste herrietara bizitzera joateko hautua egin behar izan dute, etxebizitza eskaintza eskasia dela eta. Horregatik, herrian eskaria zegoela ikusita, azken urteetan etxebizitzetxe gaia «gogotsu» lantzen aritu da udala, eta halaxe ekin zioten Kalegoenako etxebizitzetxe proiektuari.

Herriaren erdigunean dago Kalegoena, eta egoera «nahiko zailean» zegoela aitortu du Agurtzane Zelaia alkateak: «Honen arazo bakarra jabetza asko zeuzkala zen, eta, azkenean, horren aldeko apustua egitea erabaki genuen». Prozesua «luzea» izan bazen ere, Kalegoenako jabeguztietekin adostasunera iristea lortu zuen udalak, eta, geroztik, eremu osoa bere eskuetan dago. Eremuari dagokionean udalak inbertsioa egin zuen. Zehazki 306.500 euro jarri zituen; 131.500 euro lurra erosten eta 175.000 euro eremuan eraikiko diren etorkizuneko lokalen truke.

AURREPROIEKTUA MARTXAN

Aurreproiektua martxan dute dagoeneko, eta interesa duten herritarrek *Bidania-goiatz.eus*



Kalegoenako eraikiko dituzte 15 etxebizitza. ATARIA

udaleko webgunean aurkituko dute horren inguruko informazio guztia.

15 etxebizitza izango dira guztira; hortik bost babes ofizialekoak izango dira, eta gainontzeko guztiak libreak. Hainbat aparkaleku ere egongo dira, gainera; hamar aparkaleku lehenengo sotoan, eta beste hamaika egingo dituzte bigarrenengoan. «Zaila da kopuru horrekin norbait lanean hastea. Hala ere, aurtun proiektuarekin hastea da gure asmoa», esan du Zelaia.

Horretarako, aurrera begirako pausuak bi helburutan banatu ditu udalak. Alde batetik, etxe-

bizitza eraikitzaile ezberdinei aurkeztuko diete proiektua, haren exekuzioa aurrera eramatera gonbidatuz. Eta, bestetik, herrian bizitzeko interesa dutenen zerrenda osatu nahi dute.

Dagoeneko bederatzi interesdun posible daudela kontatu du alkateak, baina gehiago izango direlakoan udaleko webgunean dagoen galdetegia betetzeko deia egin du, beste behin. Galdetegia laburra da, eta interesdun bakoitzaren beharrak zeintzuk diren jakitea izango du helburu. Galdetegia otsailaren 12ra arte egongo da zabalik.

Gorpuzkien lekualdaketa egingo du udalak

Senitartekoek 2023ko otsailaren 23ra arteko epea izango dute gorpuzkien lekualdaketa kudeatzeko

Leyre Carrasco Zizurkil

Zizurkilgo Udalak jakinarazi duenez, udal hilerrian 1998 eta 1999 urteetan ehortzitako gorpuzkiak, ehortzetak egin zirenetik hamar urte baino gehiago igaro direnez, aurtun hilerriko aterako ditu.

Horretarako, senitartekoek otsailaren 23ra arteko epea izango dute gorpuzki hauen lekualdaketa kudeatzeko. Aipatutako epea igaro ondoren senitarteko-

en erantzukizunik jasoko ez balira, udalak gorpuzkiak hilerriko aterako lituzke hilerri orokorrera lekualdatuz. Zizurkilgo udal hilerriko lehen pasabideko 24. zenbakiko nitxotik 29. zenbakira birtarte dauden gorpuzkiak izango dira lekualdatuko dituztenak, 1998 eta 1999 urteetan ehortzitakoak, hain zuzen.

Hala ere, aurretik familiartekoei bakarkako jakinarazpena helaraziko zaiela jakinarazi du udalak.

Sinadura digitala egiteko aukera dute herritarrek

Leyre Carrasco Amezket

Estatuko Administrazio Orokorrak *Administrazioa zugandik gertu* ekimena jarri du abian, 500 eta 8.000 biztanle bitarteko udalerrietako herritarrei, Amezket barne, administrazioaren izapide eta prestazioen kudeaketa errazteko helburuz.

Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzak, Estatuko funtzionarioen unitate bat eratu du eta

programaren xede diren udalerrietara eramango dute, saio bat eratuz. Horrela, interesa duten amezketarrek Cl@ve deritzon sinadura digitala eskuratzeko aukera izango dute.

Interesatuak Amezketako udaletxean izena eman beharko dute edo bestela 943 65 31 89 zenbakira deitu. Izena emateko epea otsailaren 3a izango da, eta orduan zehaztuko da jardunaldia egiteko eguna eta ordua.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



**Jose Javier
Otegui
Mendizabal**



- Goian Bego -

Gustokoa dut musika,
Honek lasaitzen du arima.
Garai bateko parrandak
Goatzen dizkit ROCK & ROLLAK
Adiorik ez JABIER

Hizkien aldeko aldarriarekin bat egingo dute umeeek

Larunbatean Aiztondoko Plazida Otaño liburutegian 'Hizkien alde' album ilustratuaren egileek tailerra eskainiko dute 6 eta 10 urte bitarteko haurrentzat



Zapirain eta Labandibar' Hizkien alde' tailerretako batean. ATARIA

Jon Miranda

Larunbatean, urtarrilaren 28an, *Hizkien alde* album ilustratua oinarritutako tailerra eskainiko dute Plazida Otaño liburutegian Goiatz Labandibar Arbelaitez (Oiertzun, 1985) eta Iñaki Zapirain Retegik (Erreterria, 1982), liburuaren egileek. 11:30ean abiatuko da tailerra eta 6 eta 10 urte bitarteko haurrei bideratutakoa izango da. Parte hartzaileek manifestuarekin bat egin eta collage teknikarekin autorretratu bat egiteko aukera izango dute.

Denonartean argitaletxearekin atera dute *Hizkien alde* eta *Manifestua* azpitolua darama liburuak, Labandibarrek azpimarratu duenez, irakurtzearen eta idaztearen aldeko aldarrikapena baita bertan jaso nahi izan dutena. Bi zatitan dago banatuta liburua: lehenengoan irakurtzetaren aldeko hamar puntu biltzen dituzte, eta bigarrengoan beste dekalogo bat idazkuntzaren alde. «Keinu egiten diegu literaturak dituen alde ezberdinei eta agertzen ditugu poesiak, komikiak eta baita marrazkiak ere. Helduaroan kamustu egiten zai-

gu gaitasun hori, baina umeeek ilustrazioak irakurtzen jakiten dute txiki-txikitatik», dio Labandibarrek.

«Ez gara lotsatuko irakurtzeagatik; gustatzen zaizkigun gauzak irakurriko dizkiegu lagunei; elkarrekin uneak partekatuko ditugu; nahi duguna irakurtzeko eskubidea aldarrikatuko dugu...». Gisa honetako aldarriak jaso dituzte liburuaren lehen partean. «Irakurketa jakin batzuetara bideratzen ditugu askotan haurrak eta zer irakurri aukeratzeko askatasuna da guk liburuan defendatzen duguna».

SORTZEKO AKUILU

Album ilustratuaren bigarren zatian, idatzi eta sortzeko umeeek duten gaitasunean egiten dute egileek azpimarra. Zapirainek egin ditu liburuan agertzen diren ilustrazioak eta Labandibarren iritzian detaile askoko marrazkiak dira, ez dute testuan esaten dena erreproduzitu bakarrik egiten, osatu egiten dute kontatu nahi dena: «Collage teknika erabiliz egindakoak dira eta liburu eta egunkarien orriak erabili zituen Iñakik ilustrazioak

egiteko. Beraz, badute metaliteratura kutsu bat ere, pertsonaiak hizkiz osatuta baitaude. Askotariko pertsonaiak osatzen dira eta horrekin aniztasuna irudikatu nahi genuen, mota askotako irakurle, idazle eta marrazkilariak egon daitezke haurren artean ere».

Liburuaren harira egileek sortu duten tailerrak ere bi zati ditu. Lehenengoan album ilustratua jasotako manifestuaren inguruko iritzi trukaketa egiten dute gerturatutako haurrekin: «Elkarriaketa sortzen dugu eta oso polita izaten da, beti egoten dira parte hartzeko gogoz». Bigarren zatian, euren buruaren marrazki bat egiteko gonbita luzatzen diete umeei, collage teknika erabilita. «Hasieran kosta egiten zaie, nondik hasi ez dutelako jakiten, baina behin sormena libre uzten dutenean gauza benetan ederak osatzen dituzte», dio Labandibarrek.

Tailerraren amaieran, *Hizkien alde* manifestua sinatzeko aukera ematen zaie parte hartzaile guztiei: «Momentuz egin ditugun saio guztietan haur guztiek sinatu dute manifestua, orduan,

esan dezakegu badugula beraien adostasuna. Espero dugu Zizurkilen bilduko diren umeeak ere bat etortzea guk bertan esandakoarekin».

Hizkien alde tailerra 6 eta 10 urte arteko haurrentzat pentsatuta dagoela dio idazle oiertzuarak: «Kopuru mugatua jartzen dugu, material jakin bat erabiltzen dugulako, eta dinamikotasuna galdu ez dezan, saioak ezin duelako oso jendetsua izan. Adin muga hori zehazten dugu, 6 bat urterekin hasten direlako umeeak irakurtzen. Malguak gara adin tartearrekin, baina iruditzen zaigu adin horretako umeentzako dela aproposa saioa». Plazida Otaño liburutegira gerturatu beharko dute izen ematera larunbateko saioan parte hartu nahi duten umeeak.

Orain arteko tailerretan erantzun oso positiboa izan dutela aipatu du Labandibarrek eta larunbatean Aiztondoko liburutegian egingo duten bezala, euren tailerra Tolosaldeko beste hainbat liburutegitarantz zabaltzeko prest daudela esan du. «Helburua da umeei segi dezaten irakurtzen, idazten eta marrazten. Badirudi

adin batetik aurrera beste jarduerak batzuk hartzen dutela garrantzia eta ahaztuta geratzen direla irakurtzea edo idaztea. Garrantzitsua iruditzen zaigu ikasgeletatik kanpora irakurzaletasuna bultzatzea, eta umeei azalaztea gozatzeko bidea topatu dezaketela literaturan».

Horregatik eskertuta daude egileak Plazida Otaño liburutegian bezala, irakurzaletasuna bultzatzeko antolatzen diren ekimenekin: «Oro har ipuin kontaketa eta bestelako saioak antolatzen dira haurrentzat, tailerrak gutxiengo. Saiakera bat badago, ahalegin bat ere bai, baina mugak ere asko dira. Dena den, eginahal guztiak dira ongiatorriak, umeei ez dezaten irakurtzea edo idaztea eskolako kontu batekin soilik lotu».

Larunbateko tailerrean parte hartzen ez duten umeei etxean landu ditzakete gai hauek guztiak album ilustratua eskutan hartuta eta hezitzaileen laguntzaz. Liburuaren amaieran agertzen den manifestua sinatzeko aukera izango dute, «beti, hizkien alde», nabarmendu du Labandibarrek.

TOTEMAK JARRI DITUZTE PLAZIDA OTAÑON

Aiztondoko liburutegiko Motxila ibiltaria ekimenak emandako fruituekin joan den astelehenetik ikusgai dago totemen inguruko erakusketa liburutegiko sarreran. Haurrek motxila barruan topatu duten misioari jarraituz zatiak sortu eta elkarrekin lotu ondoren sortu dituzten eraikuntzak ikusgai izango dira otsailaren 6ra arte.

Irene Urruzola liburuzainak aipatu duenez, motxila ibiltaria jaso dutenek, tamaina ezberdinetako zapata kaxak eta bestelako materia-

lak jaso dituzte eta horiekin osatu ahal izan dute totemaren euren zatia. «Jakinarazi dugu, zenbait kulturetan, Kanadako jatorrizko kulturetan, adibidez, ipuinak kontatzeko erabiltzen zirela totemak. Behetik gora, zatika, familiako pasadizoei buruz aritzen ziren haiei begira». Motxila ibiltarian parte hartu dutenek sortu dituzten zatiekin biribilean jarri dituzte eraikitako totemak, liburutegiko sarreran.

Plazida Otaño liburutegiko motxila ibiltaria zabaldu egin dute azkeneko hiru hilabeteetan, eta adineko pertsonak ere batu dira irakurzaletasuna sustatzeko ekimenera. «Kolare horiko motxila sortu dugu, argitasuna, poza eta energiaren isla delako. Iruditzen zaigu, adineko

pertsonen artean ere sustatu daitekeela irakurzaletasuna. Batzuk asko irakurri izandakoak dira, eta beste batzuk berriz, ohituta daude istorioak entzuterako. Haien zatiak egokitutako irakurgaiak sartuko dizkiegu motxilan».

Fraisoroko erabiltzaileek ere hartu dute parte ekimenean eta San Millan eskolako umeen bisita jaso dute duela gutxi. Umeek adinekoekin harremana izan eta eskulanak sortu dituzte. Elkarlanean egindako totem horietako batzuk ikusgai izango dira orain liburutegian. Adinekoek ere aurkitutakoak dute bisita Zizurkilgo Herriguneko eskolara eta Plazida Otaño liburutegitik ere egingo dute itzulia eraikusketa ikusteko.



Motxila ibiltariako misioari jarraituz erabiltzaileek totemak sortu dituzte. ATARIA



E. APALATEGI LABAYEN

«Gogoa duen edonork parte hartu dezake Oreka taldean»

AITOR SORARRAIN OREKA TOLOSA TALDEKO KIDEA

Zortzi lagunez osaturik dagoen Oreka Tolosa slackline taldeak, ostegunero, Ferialekuan, 18:00etan ate irekiak egiten ditu kirol honen alderdi ezberdinak praktikatzeko

Endika Apalategi Labayen Tolosa

Aitor Sorarrain, Oreka Tolosa slackline taldeko kidea da pandemia hasi zenetik. Bertan, highline, midline eta waterline modalitateak praktikatzearaz gain tela, trapezioak eta akrobaziak ere egiten dituzte.

Zer egiten duzue Oreka Tolosa slackline taldean?

Oreka Tolosa slackline taldea, slackline kirola gustatzen zaigun Tolosako gazte batzuk osatzen dugu. Kirol honenganako zaletasuna genuen sei pertsona geunden Tolosan, eta denok elkartuz elkarre bat sortu genuen kirol hau indartu ahal izateko eta denon artean errazagoa egiteko.

Leku finko bat edukitzeak, zer aukera berri ematen dizkizue? Orain arte non ibili zarete zuen praktikak egiten?

Lehen, leku itxi bat izan aurretik, eguraldi ona egiten zuenean, he-

men inguruko parkeetara joaten ginen entrenatzera, eta zuhaitz tartetan sokak jarrita entrenatzen genuen. Horrek, udaberrian eta udan entrenatzera mugatzen gintuen. Orain, Tolosako Udalak Ferialekua kirol instalazio modura jarri du, eta boleibol eta gimnastika erritmikoaz gain, guri ere leku bat eman digute slackline, telak, trapezioak eta akrobaziak egin eta garatu ahal izateko.

Azalduko ahal zeniguke zuen egutegia zein den topaketa eta lehiaketa aldetik?

Udara bukaeran, Waterline ize-neko jaialdia antolatzen dugu. Espainiako Slackline jaialdi bakarra izaten da, eta 15 soka jarrita 100 partaide inguru etortzen

«Gure asmoa, egunen batean 1.000 metroko luzera duen highline soka muntatzea izango da»

dira. Gehienak nazionalak, baina internacionalak ere etorri ohi dira. Bestalde, munduko highline errekorra 2.700 metroko luzeraren egingo da aurtengo urtean. Guk pixka bat urrutik ikusten dugu hori, horretarako material pila bat behar izateaz gain, maila altuko tresneria behar baita. Horrelako zerbait egiteko gogo handia dugu, baina aurrekontua falta zaigu. Guk egin dugun handiena 500 metroko luzerakoa izan da, eta gure asmoa kilometro batetako highline soka muntatzea izango da.

Zenbatek osatzen duzue taldea? Irekia al da?

Pixkana Oreka taldea handitzen doa, eta orain zortzi lagun gara. Edozein ekitaldiren aurrean laguntza behar badugu, Donostian ditugun lagun batzuekin ibiltzen gara. Taldean sartzea libre da, eskatzen den gauza bakarra konprometitu izatea da, elkarre batetik bere lana baitauka kudeaketa lanak egiten, udaletxeekin hartumana izaten, eta egiten ditugun ekitaldiak prestatzen. Gogoa daukan edonork parte hartu dezake, eta hasi nahi duen edonork, gurekin kontaktatzea besterik ez dauka.

Ostegunetan izaten da Ferialekuan slackline praktikatzeko aukera.

Orain hasi gara ostegunetan 18:00etan ate irekiak egiten, alderdi ezberdinak praktikatzeko. Gure artean daudenak, nahiz eta profesionalak ez izan, asko dakitene kirol honi buruz. Azken ekitaldian adibidez, akrobaziak eta pinoak egin genituen. Akrobazietan ibiltzen den lagun bat etorri zen saioa ematera, dena lagun artean egiten baitugu. Sare sozialetan zabaltzen saiatzen gara ostegunetako entrenamenduen ingurukoak.

Dylan Zuluaga fitxatu du Lauburuk

Lesioak direla eta, taldea «oso egoera zailean» dagoela esan dute; oreka handia emango diola espero dute

Erredakzioa Ibarra

Laubururen lehen taldeak jokalaria berria du: Dylan Zuluaga. Kolonbiarra da, eta erkidegoko futbol taldeetan lehiatu da orain arte, El Pozoko bigarren taldean, esaterako.

Taldetik esan dutenez, lesioak direla eta, taldea «oso egoera zailean» dago. «Denboraldi osorako baja izango da Eric, eta horri gehitzen zaizkio Iliassen, Oscarren eta Uriren ondoezak. Ondorioz, nabaria da taldearen errendimenduak izan duen beherakada, eta Jotak zuzendutako ezker profila ahuldu egin da bereziki». Beraz, hor kokatzen da Zuluagari egindako eskaintza.

Jokalaria berria urtarrilaren 2an hasi zen taldearekin entrenatzen, eta probaldia gainditu ondoren, iragan asteburuan debutatu ahal izan zuen bere egun-

go taldekideekin batera Zierbenaren aurkako norgehiagokan.

Ibarrako zaleei dagokienez, Lauburutik azaldu dutenez, jokalaria berria kantxan jokatzen ikusteko aukera aste honetan izango dute. Klubetik ongietorria eman diote Zuluagari, eta esan dutenez, 23 urteko jokalaria bere ametsetako bat bete du: debuta egitea areto futboleko maila nazional batean. «Ezker hegala, baloi-tratu ona... ziur oreka handia ematen saiatuko dela jokoan».

Zuluagak berak esan du «oso pozik eta eskertuta» dagoela Laubururekin bat egiteagatik, eta taldeari «ekarpen garrantzitsua» egiten saiatuko dela. Era berean, esan du bigarren mailara igotzeko *play off*-a jokatzeke ilusio berezia duela, eta partida bakoitzean zaleei poz handia emateko gogoz dagoela.

Intxurre futbol taldeak 2023ko egutegia atera du

ALEGIA // Intxurre futbol taldeak 2023ko egutegia ateratzeaz gain, materiala ere salgai jarri du herriko hainbat puntutan. Egutegia, 8 euroren truke eskuratu daiteke kultur etxean, Hilario edaritegian eta Errotatxo okindegian. Horretaz gain lepokoak, banderizak, kamisetak eta pinak eskuratu daitezke leku berean.

Gaur goizean itxita egongo da Olaederra kiroldegia

AMASA-VILLABONA // Amasa-Villabonako Udalak jakinarazi duenez, Iberdrolak egin behar dituen lan batzuk direla medio, gaur 08:00etatik 11:00etara, argia moztuko dute Olaederra kiroldegian. Behar bezalako zerbitzua eskaintzerik izango ez denez, 11:00k arte itxita egongo da kiroldegia.



zozketa

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

Guuk Gipuzkoa Basket
vs
Club Ourense Baloncesto
partida ikusteko

Urtarrilak 28, larunbata 19:00etan
Donostiako Angulas Aguinaga Arenan

Zozketan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



I.S.A.

«Denbora generaman pentsatzen zerbait handia egin nahi genuela»

BEÑAT ETA AITZOL DOYHARZABAL KIROLARIAK

Kanadara izotz eskalada praktikatzera egindako bidaia laburbiltzen duen 'Mendian bihotz' dokumentala aurkeztuko dute anaia ibartarrek, gaur, 19:00etan, Ibarako kultur etxean; solasaldia egingo dute ondoren

Irati Saizar Artola Ibarra

Familiatik datorkie elurraren bueltako kirolekiko zaletasuna Aitzol eta Beñat Doyharzabal anaia ibartarrei. Duela bost urte Kanadara joan ziren biak, izotz eskalada praktikatzera, eta *Mendian bihotz* dokumentalean bildu dituzte hango bizipenak. Gaur izango da estreinaldia, 19:00etan, Ibarako kultur etxean.

Zer da dokumentalean jaso duzuena?

Beñat Doyharzabal: Duela bost urte Kanadara joan ginen. Denbora asko generaman pentsatzen zerbait handia egin nahi genuela. Hemen ibiltzen ginen, baina puntu bat iritsi zen zerbait gehiago nahi genuena, eta izar guztiak lerrokatu zitzaizkigun:

lanean hilabeteko baimena hartu eta bi asterako Kanadara joatea erabaki genuen.

Pentsatu eta egin.

Beñat: Aurretik asko entrenatu genuen, eta bidaia baino lehen Alpeetara joan ginen ibiltzera eta behin Kanadara iritsita, erabat izotzetan ibili ginen.

Zein eremutara joan zineten?

Aitzol Doyharzabal: Canmore herrian egon ginen eta Banff National Parkera joan ginen izotz eskalada egitera. Rocky Mountains da mendikatearen izena, eta Banff mendikate horretako zati bat da; 200 kilometro inguru ditu. Ur jauziak edonon daude.

Behin Kanadara iritsita nola antolatuz zineten?

Beñat: Pirinioetan edo Alpeetan lekuak ezagutzen ditugu, baina hura leku ezezaguna zen. Mate-

rialia prestatuta eraman genuen, eta hara iristean, hainbeste leku zegoen, ez genekielako nora joan. Gidaliburu bat hartu behar izan genuen, eta hango jendearekin ere hitz egin genuen egoera nola-koa zen jakiteko. 4X4 ibilgailu bat ere alokatu genuen. Egunerok, eskalatu behar genuen lekura iristeko ordu bete edo bi pasatzen genituen, eta gero hurbilbidea nahiko gertu izaten genuen, ur jauziak hor bertan zeudelako. Egoeraren arabera, arriskuak saihestuz aukeratzen genuen zein eremu eskalatu.

Material guztia hemendik eraman al zenuten?

Beñat: Guztia etxetik eraman genuen, eta han hautsitako zerbait soilik erosi behar izan genuen.

Aitzol: Eskiak eraman nahi genituen, pixka bat ibili ahal izateko, baina oso-oso garestia zen eramatea. Egun batean, besoek atsedean har zezaten, eskiak alokatu genituen.

Beñat: Nik, esaterako, airbag motxila bat neraman, elur jausietarako, eta hegazkinean debekatu egin zidaten sartzea, gas batekin funtzionatzen duelako, eta han alokatu behar izan nuen.

Egindako aurreikuspenak bete zitzaizkizuen?

Aitzol: Espero baino hobeto joan

zen. Egunerok-egunerok ateratzen mendiara, hamahiru egunez.

Beñat: Atsedean hartzeko egun bat hartu behar genuela eta bailaran zehar autoan ateratzen ginen hurrengo egunean zer egin genezakeen ikustera, eta egun horretan ere eskalatzen amaitu genuen.

Irudiak hartzeko nola moldatu zineten?

Beñat: Garbi geneukan bidaia dokumentatu egin nahi genuela. Gero, akaso, helburua ez zen emanaldi bat ematea, baina material dezente geneukan eta forma eman nahi izan diogu. Martin Garitano lagunak egin digu muntaketa eta istorio bat osatu du guztiarekin.

Ohituta zeundeten kirola egin bitartean irudiak hartzera?

Aitzol: Sare sozialetan ibiltzen naiz pixka bat, eta mugikorrarekin egiten dut egiten dudana. Baina GoPro kamera batekin ez nengoen ohituta, adibidez.

Beñat: Horretan ibiltzen direnek beste pertsona bat eramaten dute irudiak hartu eta bideoak egiteko. Gure kasuan, bat aurretik eta bestea atzetik gindoazen, eta ahal genuena egiten genuen GoProarekin eta mugikorrarekin. Egiten zuen hotzarekin, gainera, bateriak gutxiago irauten zuen, baina material polita bildu genuen.

Noiz hasi zineten izotz eskalada praktikatzen?

Aitzol: Hamazazpi urte inguru-ekin hasi nintzen. Hori da anaia eta biok konpartitzen dugun kirola. Arrokan eskalatzen dugu, eskiatzen dugu, baina bioi gehien gustatzen zaiguna izotz eskalada da. Inaunterietan urteroko gure plana Alpeetara joatea zen, izotz eskalada egitera. Kanadara ere otsailean joan ginen.

Izotz eskalada egiteko zer ezin da ahaztu?

Aitzol: Batik bat pioletak eta kranpoiak. Teknikoak dira, bereziak, ez dira elurretan ibiltzen diren berdinak. Eta gero izotzetan sartzen diren torlojuak behar dira; botak ere oso bereziak dira, polaina bat daukate hanka estaltzeko. Orokorrean, arropa eta material teknikoak da.

Zer nolako tenperaturak izan zenituzten?

Aitzol: 26 gradu zero azpitik izan genuen behin. Hatz muturrak belztuta amaitu nuen.

Beñat: Nik azken egunean izozketa txiki batzuk izan nituen, eskerrak azken eguna zela. Denbora asko egoten zara tenperatura oso baxuetan eta eskuetan ezin dituzu sekulako eskularruak eraman, mugimendua behar duzu-

lako. Eskalatzeko momentuan arin zoaz, eta bukatzen duzunean eskularru lodiak jarri behar izaten dira, baina sufritu genuen bai.

Ur jausietan ibilita, busti ere egiten zarete?

Beñat: Bakarren batean bai, baina hainbestekoa da hotza, hezetasunik ere ez dagoela. Pentsa, ura eraman beharrean kafea edo tea eman behar izaten dugu termoan.



«Atsedean hartzeko egun bat hartu behar genuela eta autoan ateratzen amaitu genuen»

BEÑAT DOYHARZABAL

«Arrokan eskalatzen dugu, eskiatzen dugu, baina bioi gehien gustatzen zaiguna izotz eskalada da»

AITZOL DOYHARZABAL

Horrelako pareta bat eskalatzeko zenbat denbora behar izaten zenuten?

Aitzol: Hamabi ordu inguru.

Beñat: Izotzetan denbora erraz joaten da. Normalean, egun osoko aktibitatea izaten zen.

Bazebilen jenderik?

Aitzol: Bazebilen, baina ez asko. Bakarrik ibili ginen, hain da handia... Bakardade sentsazioa genuen, eta pentsatzen genuen: hemen zerbait gertatzen bazai- gu ea zer pasatzen den.

Nolako paretak dira?

Aitzol: Izotzezko burruntzia- elkarrekin itsasten dira eta zulo txikiak geratzen zaizkie, baina beste batzuetan horma lisoak izaten dira, izotz bizi-biziarekin.

Eta altuerari dagokionez?

Aitzol: Zazpiehun metrotakoak egiten genituen.

Beñat: Uzturre ikusten? Ba Uzturre moduko ur jausi oso bat izan daiteke. Sekulako paisaiak ikusi genituen, ikusgarria izan zen.

Aitzol: Eta animalia mordoa ikusi genuen: Altzeak, otsoak, puma bat...

Beñat: Zer ziren identifikatu gabeko animalia asko ikusi genituen bai.

Maila handiko eskubaloia ikusteko aukera Usabalen

Tolosa CF-ren mendeurrenaren eta eskubaloia atalaren 50. urteurrenaren harira, Nazioarteko Eskubaloia Txapelketa antolatu dute astebururako

Imanol Garcia Landa Tolosa

Ostiralean eta larunbatean, urtarrilaren 27 eta 28an, gizonetako goi mailako eskubaloiaz gozatze-ko aukera izango dute zaleek. Nazioarteko Eskubaloia Txapelketa antolatu du Tolosa CF klubak, bere mendeurrenaren eta eskubaloia atalaren 50. urteurrenaren ekitaldien barruan. Lau talderen arteko torneo izango da: Euskal Herriko talde ikurra den Bidasoa Iruenez gain, Espainiako Civitas BM Guadalajara eta BM Logroño La Rioja taldeak eta Frantziako ligako bigarren mailan aritzen den Billere Pau Pyrenees taldea izango dira parte hartzen.

Iñaki Martixa Tolosa CF-ko lehendakariak taldeen maila nabarmendu du, eta Juan Martin Amiano *Porta* eskubaloia ataleko presidentea gaineratu du «zerbait berezia» egin nahi zutela: «Bidasoa Irun taldearekin oso

harreman ona dugu, Logroño taldearekin ere bai, eta Guadalajara gonbidatu dugu bertan jokatzen ari delako Haitz Gorostidi tolosarra». Izan ere, Gorostidi izan da eskualdeko lehen jokalaria Asobal ligan jokatzen, estatuko eskubaloien lehen mailan. «Taldea frantsesarekin ere harreman handia dugu, bere garaian Aitor Etxaburu entrenatzailea izan baitzen. Frantziako bigarren mailan aritzen da talde hori, baina kontuan izan behar da Frantziako eskubaloien maila handiagoa dela». Txapelketa berrez aurreko abuztuaren egin nahi izan zuten, baina azkenean ez zen posible izan eta orain urtarrilean egiteko aukera sortu da. «Munduko Txapelketa dago jokoan egunotan, eta horrek eman digu aukera nazioarteko txapelketa hau antolatzeke», esan du Amianok. «Zentzu horretan eskerrak eman behar dizkiogu Bidasoari, asko lagundu baitigute



Iñaki Martixa, Juan Martin Amiano 'Porta' eta Imanol Esnaola, nazioarteko txapelketaren aurkezpenan. I.G.L.



Guadalajara taldeko Haitz Gorostidi tolosarra jaurtiketa bat egiten. RUNONLINE

txapelketa hau aurrera ateratzen. Bide batez, eskerrak eman antolakuntzan ari den talde guztia-ri».

Partidei dagokionez, ostiralean 18:00etan jokatuko da lehenengo, Logroño La Rioja eta Billere Pau Pyrenees taldeen artean. Ondoren, 20:00etan, Bidasoa Irun eta Civitas Guadalajara taldeen arteko neurketa jokatuko da. Larunbatean, 17:30etik au-

rrera, hirugarren eta laugarren postua zehazteko partida jokatuko da, ostiraleko partidetak galtzaileen artean, eta 19:15ean hasiko da finala. Sarrerei dagokionez, 25 urtetik beherakoek zein Tolosa Eskubaloia taldeko abonatuak 5 euro ordainduko dute egun bakoitzeko. Abonatuak ez direnek 15 euro ordainduko dute egun bakoitzeko, eta bi egunetan joan nahi dutenentzako merkea-

go izango dute sarrera, 25 euro ordainduz.

Helburua zaleek «asteburu eder bat» pasatzea dela azaldu du Amianok, eta taldeetako partideek, lehian aritzeaz gain, elkarrekin giro onean egoteko aukera izango dute, larunbat gauean denek elkarrekin Isastegi sagardotegian afalduko dutelako. Herritarrei gonbita egin diete Tolosa CF-tik asteburuan Usabalerako joateko: «Asteburu polita igarotzeko aukera izango dute».

Aurrera begira, mendeurrenaren eta 50. urteurrenaren ospakizun ekitaldien barruan, emakumezkoen Bera Bera eskubaloia taldeak Usabalen partida ofizial bat jokatuko duela konfirmatu du klubak. «Otsailaren 18an izango da, Zaldunita Bezperan, eta Rioja taldearen aurka jokatuko du ligako partida», zehaztu du Imanol Esnaola Tolosa Eskubaloiko zuzendaritzako kideak.

Hamar domina eskualdeko atletentzat Euskadikoan

Erredakzioa

Pasa den asteburuan Donostiako Belodromoan maila absolutuan pistako Euskadiko Atletismo Txapelketa egin zen. Guztira hamar domina lortu zituzten eskualdeko atletek, horietatik hiru urrezkoak, bi zilarrezkoak eta bost brontzezkoak.

Urrezko dominetako bat Real Sociedad taldeko Ander Martinez de Rituertok irabazi zuen 5,10 metro saltatuz. Atletiko San

Sebastian taldeko bi atleta izan ziren beste bi urrezko dominak lortu dituztenak. Maria Lasa irurarrak 1.500 metroko lasterketa irabazi zuen 4.34,54rekin, bere markatik oso gertu. Maria Navascues tolosarrak 3.000 metroko proba irabazi zuen 10.50eko markarekin.

Zilarrezko dominetako bat Bidasoa Atletikoko Eunarte Martinez de Rituerto tolosarrak lortu zuen altuera jauzian 1,70 metro saltatuz eta marka pertsonala

eginez. Beste zilarrezko domina Real Sociedad klubeko Joseba Larrauri irurarrak lortu zuen, 200 metrotan 21,79ko markarekin. Larraurik ere beste domina bat lortu zuen, hau brontzezkoa, 60 metroetan 6,99 marka eginez. Bidasoa Atletikoko Mario Estanga tolosarrak ere brontzezkoa lortu zuen, pertika jauzian 4,40 metro saltatuz.

Brontzezko beste hiru dominak Tolosa CF-ko atletek lortu zituzten. Nora Ituartek 200 metro-



Eunarte Martinez de Rituerto, Gipuzkoako Txapelketan. BIDASOA ATLETIKO

tan eskuratu zuen domina, 25,35 markarekin. Lizeta Okomok pisu jaurtiketan lortu zuen, 11,43 me-

trorekin. Julen Martinek, berri-
rrez, 60 metro hesietan lortu zuen, 8,42ko markarekin.



ASTEAZKENA, 2023KO URTARRILAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoñ, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 25

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Kafe kapsulak gaika biltzearen inguruko informazio puntua, 16:00etan.

Altzo. Herri batzarra, udaletxeko ekintza aretoan, 19:00etan.

Berastegi. Irakurketa kluba, Katixa Agirreren Berriz zentauro eleberria landuz, udal liburutegian, 18:00etan.

Berrobi. Familia-loturak. Fidelitasunak eta tira-birak, Marta Delgado terapeuta eta familia konstelazio bideratzailearekin. Etxolan, 17:00etan.

Ibarra. Izotz eskalada dokumentala eta solasaldia. Aitzol Doyharzabal eta Beñat Doyharzabalekin, kultur etxean, 19:00etan.

Tolosa. Ilargia eta landareak, Jakoba Errekondorekin. Liburu aurkezpena eta hitzaldia. Topic-en, 18:30ean.

Erakusketak

Tolosa. Jordi Bertran, txotxongilolararen 45 urte, Topic-en.

Tolosa. Juan Sagastizabalen Mundu naturala erakusketa Aranburun.

Tolosa. Fernando Rojoren Begiradak mundutik 3 tabernan.

Tolosa. Munduari bira eman zion ontzia Aranburu jauregian.

Zizurkil. Motxila ibiltaria ekimenaren barruan, totemak liburutegian.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Eguraldia.

09:00. Hitzez hitz. Galtzaundi.

12:30. Pasahitza. Albisteak.

18:00. Desafioa. Herri kirolak.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. C. Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalaretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro aldakorra. Goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta eguraldi atsegina izango da. Egurdirako ordea, zeruan hodeiak nagusituko dira eta arratsaldean euri zaparrada txiki batzuk izango dira. Elur-maila 600-700 metroan kokatuko da. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura koska pare bat igoko da, 5-8 graduan joz goia.

Bihar. Giro kaxkarra. Egun osoan zehar hodeiak izango dira nagusi eta euri zaparradak izango ditugu. Euri gehien eguerdian eta arratsaldean arte egingo du, non tarteka gogotik botako duen. Goizean eta azken orduetan euri gutxiago izango da. Goizean ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, arratsaldean ipar-ekialdera egingo duelarik. Tenperatura antzeko mantenduko da 5-8 graduan joz goia. Elur-maila 600-700 metroan kokatuko da, baina gauean 400 metrora jaitsiko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Azoka berezien egutegia aurkeztu dute Fiturren

Tolosako ordezkariak nazioarteko turismo azokan izan dira, aurten izango diren ekitaldi gastronomikoen berri ematen



Imanol Zubelzu eta Eider Fernandez Elikar eta Leartiker-eko ordezkariak eta Xarles Iturbe turismo zinegotzia, Fiturren. ATARIA

Erredakzioa Tolosa

Larunbatero Zerkausian egiten den azokaz gain, urtean zehar antolatzen diren azoka bereziengatik eta ekitaldi gastronomikoenengatik da ezagun, besteak beste, Tolosa. Bada, pasa den astean Madrilen egin zen Fitur Nazioarteko Turismo Azokan Tolosak ere bere presentzia izan zuen. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren turismo eskaintzaren barruan eman zuten Tolosaren eskaintzaren berri.

Azoka gastronomikoen jomuga lelopean, Tolosan 2023an izango diren azoka berezien eta

ekitaldi gastronomikoen berri eman zuten. Gutxienez bederatziz topaketa izango dira eta larunbat honetan, urtarrilaren 28an, izango da lehena: XXVII. Zuhaitz Eguna. Udaberrian hiru azoka berezi egingo dituzte eta udazkenean beste bost.

Apirilaren 1ean hartuko du bigarren azoka berezia, V. Ardo Zuriaren Azoka. Ondoren, maiatzaren 13an etorriko da Lore eta landareen azoka, eta astebete beranduago hartuko du Tolosak Haragi: IV. Haragiaren eta Txingarraren Nazioarteko Topaketa, maiatzaren 18tik 21era, hain justu.

Urriaren bi hitzordu izango dira. Batetik, urriaren 19tik 21era Mikologia: XII. Mikologia jardunaldiak izango dira, eta urriaren 28an, berriz, Tolosa Goxua: XXVIII. Gozoaren Azoka berezia izango da.

Azaroan ere beste bi azoka edo topaketa egingo dituzte. Azaroaren 4an Esneki: II. Gazta eta esnekiaren azoka berezia izango da, eta azaroaren 18an, Babarruna: XXVIII. Tolosako Babarrunaren Jaia.

Azken hitzordua urte amaieran, abenduaren 16an egingo den XXIV. Gabonetako azoka berezia izango da.



ikasteko
grina
sortuz

Aurrematrikulazio
epea zabalik
Otsailaren 13tik 24ra

Aiztondoko
eskola
publikoa

